Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

## 2020RAKO ESKUALDEKO LEHIAKORTASUNA SUSTAZEKO DIRU LAGUNTZEN PROGRAMA ARAUTZEN DUEN FORU DEKRETUAREN PROIEKTUAREN ENTZUNALDIAREN ETA INFORMAZIO PUBLIKOAREN IZAPIDEAREN EMAITZEI BURUZKO MEMORIA

Indarrean dagoen araudia eta, zehazki, Bizkaiko Foru Aldundiaren izaera orokorreko xedapenak prestatzeko prozedura arautzen duen 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuan xedatutakoa betetzeko:

- 2020ko otsailaren 14an Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunea izapidetzeko prozesuen atalean argitaratu zen eskualdeko lehiakortasuna sustatzeko 2020ko programako dirulaguntzak arautzen dituen foru dekretuaren proiektuaren aurrerapenari buruzko aurretiazko kontsulta publikoaren izapidea. Behin epe hori amaituta erantzunik ez zela egon egiaztatu zen eta martxoaren 9an aurretiazko kontsulta publikoaren izapidearen emaitzei buruzko memoria egin zen.

- Era osagarrian, kontsulta publikorako epea ireki ondoren, proiektuaren zirriborroa zabaldu zen BEAZen instalazioetan martxoaren 6an egindako zirriborroa aurkezteko saio baten. Bilera horretara Bizkaia Orekan sareko honako erakunde hauek gonbidatu ziren: Basauri-Etxebarriko Behargintza, Errota, Galdakaoko Behargintza, Arrigorriagako udala, Gorbeialde, Inguralde, Abanto-Zierbena Zerbitzuak, Enkarterriko Mankomunitatea, Orkestra, Enkartur, Meatzaldeko Behargintza, Sestaoko Behargintza, BIC Bizkaia Ezkerraldea, Egaz Txorierri, Leioako Behargintza, Getxolan, Jata-Ondo LGE, Uribe Kostako Behargintza, Sopelako udala, Mungialdeko Behargintza, Azaro Fundazioa, Ermuko udala, AED, Durangaldeko Merinaldea, Durangoko Behargintza, Lanbide Ekimenak Gernika eta Bermeoko udala. Bilkuran azaldutako informazioa, ondoren, martxoaren 9an, posta elektronikoz bidali zitzaien arestian aipatutako erakundeei.

- 2020ko martxoaren 12an argitaratu zen 2020rako Eskualdeko lehiakortasuna sustatzeko diru-laguntzen programa arautzen duen foru dekretuaren proiektuaren entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapidea, Bizkaiko Foru Aldundiaren web orriaren izapideen atalean.
- 2020ko martxoaren 27an, partaidetzako webgunean alegazioak aurkezteko epearen luzapena iragarri zen, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren (465/2020 EDak horri dagokionez egin duen idazkuntzan) arabera onartutako sektore publikoko

## MEMORIA SOBRE LOS RESULTADOS DEL TRAMITE DE AUDIENCIA E INFORMACIÓN PÚBLICA PREVIA DEL PROYECTO DE DECRETO FORAL REGULADOR DE LAS SUBVENCIONES DEL PROGRAMA DE IMPULSO A LA COMPETITIVIDAD COMARCAL 2020

En cumplimiento de lo establecido en el Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia de 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia:

- Con fecha 14 de febrero de 2020 se publicó en el apartado de procesos de tramitación de la web de la Diputación Foral de Bizkaia el trámite de consulta pública previa del avance del proyecto de decreto foral regulador de las subvenciones del Programa de impulso a la competitividad comarcal 2020. Una vez finalizado el plazo se constató que no hubo respuestas y el 9 de marzo se realizó la memoria sobre los resultados del trámite de consulta pública previa.

- Adicionalmente, después de abrir el plazo para la consulta pública, se divulgo el borrador del proyecto en una sesión de presentación del borrador celebrada el 6 de marzo en las instalaciones de BEAZ a la que fueron invitadas las siguientes entidades pertenecientes a la red Bizkaia Orekan: Behargintza de Basauri-Etxebarri, Errota, Behargintza de Galdakao, Arrigorriagako udala, Gorbeialde, Inguralde, Abanto-Zierbena Zerbitzuak, Enkarterriko Mankomunitatea, Orkestra, Enkartur, Meatzaldeko Behargintza, Behargintza de Sestao, BIC Bizkaia Ezkerraldea, Egaz Txorierri, Behargintza de Leioa, Getxolan, ADR Jata-Ondo, Uribe kostako Behargintza, Ayuntamiento de Sopela, Mungialdeko Behargintza, Azaro Fundación, Ayuntamiento de Ermua, AED, Mancomunidad de Durango, Behargintza de Durango, Lanbide Ekimenak Gernika y Ayuntamiento de Bermeo. La información explicada en la sesión se remitió después, el 9 de marzo, por correo electrónico a las entidades citadas anteriormente.
- Con fecha 12 de marzo de 2020 se publicó en el apartado de procesos de tramitación de la web de la Diputación Foral de Bizkaia el trámite de audiencia e información pública del proyecto de decreto foral regulador de las subvenciones del Programa de impulso a la competitividad comarcal 2020.
- Con fecha 27 de marzo de 2020 se anuncia en la web de participación la prórroga del plazo de presentación de alegaciones debido a la suspensión de términos e interrupción de los plazos para la tramitación de los procedimientos de las entidades del sector

Elektronikoki sinatutako dokumentua. S0NT-427O-NL47-X4NR Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) S0NT-427O-NL47-X4NR en www.ebizkaia.eus.

erakundeen prozedurak izapidetzeko epe-mugak bertan behera uzteagatik eta epeak eteteagatik (COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzen du dekretu horrek). Zirriborroari buruzko iruzkinak jasotzeko epearen luzapen hori Dekretuaren onuradun diren hainbat erakunderi jakinarazi zitzaien, 2020ko apirilaren 2an eta 3an bideokonferentzia bidez egindako bileretan.

- Apirilaren 14an, xedapen honen presazko izapidetzea bidezkoa dela adierazten duen Foru Erabakia onartu zen, eta egun horretan amaitutzat jo zen Foru Dekretu proiektuaren zirriborroari Entzunaldi Publikoaren bidez erantzunak jasotzeko epea.

público aprobados según el Real Decreto 463/2020, de 14 de marzo, por el que se declara el estado de alarma para la gestión de la situación de crisis sanitaria ocasionada por el COVID-19(en su redacción dada por el RD 465/2020). Esta prórroga del plazo para recibir comentarios al borrador se comunica a diversas entidades beneficiarias del Decreto en las reuniones por videoconferencia mantenidas durante el 2 y 3 de abril de 2020.

- Con fecha 14 de abril se aprueba el Acuerdo Foral que declara la procedencia de la tramitación urgente de esta disposición dando por finalizado en dicha fecha el plazo para recibir respuestas al borrador de proyecto Decreto Foral mediante el mecanismo de Audiencia Pública.

Aurrekoa kontuan hartuta, iruzkinak jasotzeko epeak amaitutzat jo eta jasotako proposamenei buruzko memoria hau egin behar da.

Teniendo en cuenta lo anterior se concluye que procede dar por concluido los plazos para recibir comentarios y elaborar la presente memoria relativa a las propuestas recibidas.

Martxoaren 12an hasi eta apirilaren 14an amaitutako epean, hamar erakunde hauen alegazioak jaso dira: Azaro Fundazioa, Bermeoko udala, BIC Bizkaia Ezkerraldea, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoa, Enkarterri, Ermuko udala, Errota Fundazioa, ADR Gorbeialde LGE eta Meatzaldeko Behargintza, S.L.

En el plazo iniciado el 12 de marzo y finalizado el 14 de Abril se han recibido alegaciones por parte de las siguientes diez entidades: Azaro Fundazioa, Bermeoko Udala, BIC Bizkaia Ezkerraldea, Mancomunidad de la Merindad De Durango, Enkartur, Enkarterri, Ayuntamiento de Ermua, Errota Fundazioa, ADR Gorbeialde LGE, Y Meatzaldeko Behargintza, S.L.

Aldi honetan arau-proposamenari emandako erantzunen laburpena eginda, hauek lirateke kontuan hartu beharreko gai nagusiak:

1. Erantzun nagusian ezartzen da Dekretuak lehentasunez jaso behar dituela COVID-19ak eragindako krisiaren epe labur eta ertaineko ondorioak arintzea helburu duten proiektu guztiak, Dekretuaren zirriborroaren hasierako idazketan pandemia oraindik nazioartean hedatu gabe zegoelako.
2. Programaren onuradunei emandako laguntzaren % handitzea
3. Bereziki areagotzea honako irizpide honen haztapena: inpaktua enpresetan
4. Balorazio-irizpide hauen puntuazioa murriztea: lankidetza, proposamenaren berrikuntza, 2030 Agendaren GJHak betetzea eta zeharkako politiken proposamenean sartzea.
5. Laguntza eskatzen duten erakundeen xede-sektoreen artean turismoa sartzea.

Realizando una síntesis de las respuestas a la propuesta normativa obtenidas en este periodo los principales temas a considerar serían los siguientes:

1. La principal tiene que ver con que el Decreto recoja de forma preferente todos aquellos proyectos que tengan como objetivo mitigar las consecuencias, a corto y medio plazo, la crisis provocada por el COVID-19 que en el momento de redacción inicial del borrador del Decreto aún no se había expandido internacionalmente.
2. Aumentar el % de la ayuda otorgada a las beneficiarias del programa
3. Aumentar especialmente la ponderación del criterio relativo al: Impacto en las empresas
4. Disminuir la puntuación de los siguientes criterios de valoración: Cooperación, Novedad de la propuesta, Cumplimiento de los ODS de la Agenda 2030 y la incorporación en la propuesta de Políticas transversales.
5. Incluir Turismo entre los sectores objetivo de las entidades solicitantes de la ayuda.

Elektronikoki sinatutako dokumentua. S0NT-427O-NL47-X4NR Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) S0NT-427O-NL47-X4NR en www.ebizkaia.eus.

6. BIC motako erakundeek Dekretuaren onuradun izatea.

7. Exekuzio-epea 2021eko martxora arte luzatzea eta 2021eko ekainera arte justifikatzea.

8. Bidaia-gastuak onartzea diruz lagun daitezkeen gastuen artean.

1. puntuari dagokionez, proposamen hau Dekretuaren zirriborro berrian txertatzen da eta berariaz aipatzen da COVID-19ak eragindako krisia, bai Hitzaurrean, bai, eta bereziki, 3. Oinarrian. Dirulaguntza jaso dezakeen egitatea. Hala, erakunde onuradunek krisiaren ondorioak arintzeko planteatzen dituzten ekimen guztiak diruz lagundu ahal izango dira dirulaguntzen programa honetan.

2. puntua ere onartu egiten da eta, horregatik, dirulaguntzen bi tarte sortzea planteatzen da. Lehenengoan, dirulaguntzaren % 70etik 80ra igotzea proposatzen da, eta proiektuek 60 puntuko balorazioa gainditzen badute, dirulaguntza % 100ekoa izango da.

Balorazio-irizpideei buruzko iruzkinak ere (3. puntua eta 4. puntua) Dekretuaren testuan sartu dira, enpresetan duen eraginari buruzko irizpidea handituz; izan ere, hori izango da Ekonomia Sustapeneko erakundeek deialdi honetan jaso beharreko eskaeren ezaugarri nagusia. Puntuazioaren igoera hori konpentsatzeko irizpideetako puntuak murriztu dira: lankidetza, proposamenaren berrikuntza, 2030 Agendaren GJHak betetzea eta zeharkako politikak.

5. puntuko eskaera, Turismo sektorea hasierako sektore objektiboetan sartzeari buruzkoa (industria, industriarekin lotutako zerbitzuak eta handizkako merkataritza), ezetsi egiten da, Ekonomia Sustatzeko Sail honek berariaz turismo-sektoreari zuzendutako dirulaguntzen programa bat duelako.

BIC Bizkaia Ezkerraldea erakundeak programa honetan esleitutako laguntzen erakunde onuradunen artean sartzea eskatzen du. Uste da oso eginkizun garrantzitsua duela eta hala izaten jarraituko duela prozesu honetan baina. hori gorabehera, ez da uste dirulaguntzen programa honetako laguntzen erakunde onuradun gisa sartu behar denik, Eusko Jaurlaritzak eta BFAk finantzatutako erakundea baita.

Iruzkinak bidali dituzten zenbait erakundek exekuzio-epea 2021eko martxora arte luzatzea eskatu dute eta, ondorioz, justifikazio-epea 2021eko ekainera arte luzatzea. Hala ere, eskaera hori ezetsi egin da, atzerapen hori ez delako beharrezkoa, eskatzaileak hala eskatuz gero luzapenak eskatzeko aukera baitago. Beraz,

6. Entidades tipo BIC solicita ser beneficiarias del Decreto.

7. Ampliar el plazo de ejecución hasta marzo 2021 y justificación hasta junio 2021.

8. Admitir gastos de viajes entre los gastos subvencionables.

Respecto al punto 1 se incorpora esta propuesta en el nuevo borrador del Decreto con mención expresa a la crisis ocasionada por el COVID-19 tanto en el Preámbulo como especialmente en la Base 3. Hecho Subvencionable. Así todas las iniciativas que planteen las entidades beneficiarias dirigidas a paliar los efectos de la crisis serán potencialmente subvencionables en este programa de subvención.

El punto 2 se admite, asimismo, y por ello se plantea la creación de dos tramos de subvención. En el primero se propone aumentar del 70 al 80 el % de subvención y a partir de que los proyectos superen los 60 puntos de valoración la subvención será del 100%.

Los comentarios referidos a los criterios de valoración, punto 3 y punto 4, se incorporan también en el texto del decreto aumentando el criterio de Impacto en las empresas dado que va a ser la característica principal de las solicitudes a recibir por parte de las entidades de Promoción Económica en esta convocatoria. Para compensar este aumento de puntuación se reducen los puntos de los criterios: Cooperación, Novedad de la propuesta, Cumplimiento de los ODS de la Agenda 2030 y Políticas transversales.

La solicitud del punto 5, referente a incluir el sector Turismo a los sectores objetivos iniciales (industria, servicios conexos con la industria y comercio al por mayor), se desestima debido a la existencia de un programa de subvenciones de este mismo Departamento de Promoción Económica dirigido expresamente al sector turístico.

La entidad BIC Bizkaia Ezkerraldea solicita ser incluida entre las entidades beneficiarias de las ayudas adjudicadas en este programa. Se considera que su papel es y seguirá siendo muy relevante en este proceso, sin embargo no se considera que debe incluirse como entidad beneficiaria de las ayudas de este programa de subvenciones dado que es una entidad financiada por el Gobierno Vasco y por la DFB-BFA.

Varias de las entidades que han remitido comentarios han solicitado ampliar el plazo de ejecución hasta marzo 2021 y, consecuentemente, el de justificación hasta junio 2021.Sin embargo se desestima esta petición por considerarse innecesario este aplazamiento dado que ya existe la posibilidad de solicitar prórrogas en caso de que

Elektronikoki sinatutako dokumentua. S0NT-427O-NL47-X4NR Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke, www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) S0NT-427O-NL47-X4NR en www.ebizkaia.eus.

datozen hilabeteetarako aurreikusten den ezohiko egoeragatik gerta litezkeen atzerapenei aurre egiteko, luzapen-mekanismoa dago, eta, era osagarrian, gogorarazten da 2021eko lehen hilabeteetan egin beharreko jarduerak hurrengo ekitaldian argitaratuko den deialdian sartuko direla.

la solicitante lo requiera. Por tanto, para hacer frente a los retrasos que se pudieran a producir por la situación atípica que se prevé para los próximos meses, se dispone del mecanismo de prórroga y, adicionalmente, se recuerda que las actividades a realizar en los primeros meses de 2021 tendrán cabida en la convocatoria que se publicará el próximo ejercicio.

Azkenik, ez da onartzen diruz lagun daitezkeen gastuen artean bidaia-gastuak onartzeko eskaera, aurreikusitako jarduketak tokikoak edo lurraldekoak izango baitira. Aurrekoa kontuan hartuta, programa honetan ez dira kontuan hartuko nazioarteko bidaiak, eta horien zenbatekoak bai behar dezakeela finantzaketa gehigarria.

Por último, se desestima la solicitud de admitir gastos de viajes entre los gastos subvencionables puesto que las actuaciones previstas tendrán carácter local o territorial. Dado lo anterior, no se consideran en este programa viajes internacionales cuyo importe sí pueda necesitar de financiación adicional

Aurreko puntuetan deskribatutakoa ikusita, 2020ko Eskualdeko Lehiakortasuna Sustatzeko Programarako Foru Dekretuaren proiektuaren testua aldatu da, txosten honetan adierazitakoarekin bat etorriz.

Visto lo descrito en los puntos precedentes se procede a modificar el texto del proyecto de Decreto Foral para el Programa de Impulso Comarcal 2020 de acuerdo a lo indicado en el presente informe.

Beraz, egokitzat jotzen da proposaturiko testu arauemailearen proiektua izapidetzen jarraitzea.

En consecuencia, se estima oportuno continuar con la tramitación del proyecto de texto normativo propuesto.

Bilbon, 2020ko apirilaren 22an.

En Bilbao, a 22 de abril de 2020.

Sin./Fdo.: FRANCISCO BORJA LASTRA GABIÑA - 2020-04-23
ESKUALDE GARAPENERAKO ZERBITZUKO BURUA
JEFE/A SERVICIO DE DESARROLLO COMARCAL

Sin./Fdo.: MARIA CRISTINA MUGICA VARGAS - 2020-04-23
LURRALDE LEHIAKORTASUNA ETA TURISMOA BULKTZATZEKO ZUZ.NAG.-REN ZUZENDARI NAGUSIA
DIRECTOR/A GENERAL DE DIRECCIÓN GENERAL DE COMPETITIVIDAD TERRITORIAL Y TURISMO

Elektronikoki sinatutako dokumentua. S0NT-427O-NL47-X4NR Egiaztapen Kode Elektronikoaren bidez (EKE) egiaztatu daiteke www.ebizkaia.eus helbidean.
Documento firmado electrónicamente. Autenticidad verificable mediante Código de Verificación Electrónica (CVE) S0NT-427O-NL47-X4NR en www.ebizkaia.eus.